

# Kultura

## Itziar Nazabalen margoak lortian ikusgai

Artista altsasuarraren ibilbidea islatzen du erakusketak

Altsasuko lortia Kultur Guneak Itziar Nazabal Regueira margolari altsasuarraren erakusketa hartuko du abenduaren 30era bitartean. Abenduaren 2an mustu zen erakusketa, eta bertan artista gazte honen 60 margo jaso dirá. Erakusketa zabalik dago asteartetik ostiralera 18:30etik 21:00era eta igande eta jaiegunetan 18:30etik 20:00era.

Nazabalek Salamancan, Euskal Herriko Unibertsitatean eta Ingalaterrako Bradforren egin zituen Arte Ederretako ikasketak. Bertan diseinu, pintura eta haurrendako pedagogian sakondu zuen, eta Bradforren grabatuaren teknika. Kordoban, Jose Martínez Lázaro Arte Ederretako Akademiako Ohorezko kidearekin akuarela landu zuen Itziarrek. Apiril-leai arteplastikoen tailerra zabaldu zuen Altsasan. Tailerrean, marrazketa eta margo ikastaro-akematen dizkie 100ikasle ingururi. Horretaz gain Bakaiiku eta Ziordian klaseak ematen ditu.

### Ibilbidearen isla

Aurretik hain baterakusketatan parte hartu du Altsasuko artistak - Bilbon, Kordoban, Ingalaterran, Koldo Amanzekantolatutako bizpahiru erakusketa kolektibotan...- baina lortia erakusketarekin pozaren pozez dago. *"lortia osa toki ederra da emusketetariño, eta oso pozik nago erakusketa oso polita geratu d'niko. Panel guztiak erabiliz 100ko desberdinak muntatu ditugu, estucaren arabera. Tailerra zabaldu eta jero nire janak nire herrian esposatzea zoragarria da. Gainera, erakusketa honek nire curriculumean asko lagunduko du, Gaterietan sartzea oso zaila delako. Horé Htzateken ireametsa"* dio Itziarrek.

Erakusketan artista altsasuarrak egindako lanen artean 60



Itziar Nazabal erakusketan jarritako lan baten aurrean.

aukeratu eta bildu dirá. *"Nire ibilbidearen berri ematen dille lan lianek, margotzen hasi nintzenetik lwnaino. Hortaz, estilo eta teknika ezberdinekin egindako margolanak topa daitezke, erakusketa nire ibilbidearen isla baita"* gaineratzen du. Anatómi ikasketak (eskuak, erretratuak...), paisaiak, Van Gogh-en lanen kopiak (ikangarri gusta tzen zaizkio), lan abstraktuak, liiperrealismo estiloz egindako Altsasuko txokoen bilduma, emakumeen biluziak kolorezko planoetara transfiguratuta... denetarikus daitezke. Teknikak ere, ugariak dirá: akuarela serieak (Cordobako bilduma, Llançaco bilduma, San Donato, Venezia...), akuarela tinta txinarekin tartekatuta, akrilikoak, oleoak, arkatz teknika, teknika lehorrak (karbonziloa, sangina, sepia...), teknika nahasiak (testurak sortzeko área erabilia):..

### Etorkizuna

Zein nolako lñitrikak izan dituen galdetuta, kaleko jendearenak jaso dituela adierazi digu artistak. *"Jendearenak onak dirá. Ez zekitela jainbeste lan eginak nitiénik, nire lanekin erakusketa egiteko garata banuela, politik direla... Jakina, kritika txarrak ere egongo dirá, baina ez dizkidate esan"*. Momentuz, eguneroko lanarekin aurrera jarraitzen du, klaseak eman eta ahal dituean margotzen. Hiru lan ildo nagusi dauzka: Alde batetik, emakumearen biluziak kolorezko planoetara transfiguratzea, eragin kubistarekin, bilduma osatuz. *"Nire esperiméntua da, kreazio propioa"* dio. Bestetik, Altsasu eta Sakanako paisaien bilduma egitea, estilo biperrealistarekin, argazkiak balira bezala, eta proiektzioan itsas paisaien eta zeruaren inguruan formatu panoramikoarekin seriea egitea.